barriek

HURRENGO ERAKUSKETA

Maider Aldasoro
2026ko irailak 8 - azaroak 22

2026ko ekainak 23 – irailak 6

Amaia Molinet

ORDUTEGIA
Asteartetik larunbatera 11:00 - 15:00 / 16:00 - 20:00
Igande eta jai egunetan 11:00 - 15:00
Astelehenetan itxita

EUSKARA

Iparraguirre 21
48009 Bilbao
T. +34 94 406 85 32

salarekalde.bizkaia.eus
salarekalde@bizkaia.eus
@rekaldearetoa

Bizkaia
rekalde aretoa

rekalde

Amaia Molinet

Amaia Molinet (1988) Arte Ederretan lizentziaduna da, eta Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboan masterduna ere bai (EHU). Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko artista AZkidea izan da (2023-2025), eta beka eta sari ugari jaso ditu: Guggenheim Museo, INJUVE - Espainiako Kultura Ministerio, Huarte Zentro, BilbaoArte Fundazio, Europa Sortzaile eta Goethe Institut-enak. Egonaldi artistikoak ere egin ditu Mendebaldeko Saharan, Islandian, Errumanian, Eslovakian, Eslovenian, Argentinan, Txilen, Estatu Batuetan, Alemanian, Frantzian, Portugalen, Espainian eta Euskal Herrian.

Bakarkako erakusketen artean, nabarmentzekoak dira *Mina ta Lilura* Hosek Contemporary-n (Berlin, 2025) eta *Tierra Quemada - Lur Errea* Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaon (2025). Bere lana hainbat instituziotako erakusketa kolektiboen parte izan da: Nafarroako Museoan (Iruñea), Montehermoso Kulturunean (Gasteiz), San Telmo Museoan (Donostia), Fabra i Coats Centre d'Art Contemporani-n (Bartzelona), C arte C-n (Madril), MUHNAC (Lisboa), Museo de la Memoria y los Derechos Humanos-en (Txileko Santiago), BAAD! Bronx Academy of Arts and Dance-n (New York), Galería Rafael Pérez Hernando-n (Madril), Gaep Gallery-n (Bukarest) eta Wunsch Gallery-n (Buenos Aires).

Rekalde Aretoak AMAIA MOLINETen erakusketa aurkezten du, barriek programa barruan. Programa horrek ikusgai jartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren arte plastiko eta ikusmen-arteen bekez gozatu duten artisten aukeraketa bat.

2018an Bizkaiko Foru Aldundiaren arte-beka jaso nuen, eta 2026an bakarkako erakusketa egin dut Rekalde Aretoan. Tarteko une batean, *La ideología del amor* proiektua gauzatu nuen, 2022tik aurrera, eta mugarria izan da nire ibilbide artistikoan. Europako hainbat lekutan egindako aurreko artelanen sorta batek osatzen du erakusketa, eta beste pieza berri batzuk ere baditut, Bilboko Burdin Hesia zeharkatzeko esperientziak inspiratuak.

Jugoslavia zaharreko *spomenik*ak eta naziek itsasalde atlantikoan egindako bunkerrak XX. mendearen erdialdean eraikitako zementuzko eta hormigoizko eraikinak dira. Gure kontinenteko hainbat tokitako paisaia aldatu, ñabardurez bete, eta birsignifikatu egiten dute. Boterean dauden gizonek eraiki eta agindu dituzte. Beren presentzia inposatzaileak generoa izango balu, esango genuke kulturalki maskulino gisa eraikitzen eta hautematen dela, ez bakarrik imaginario belikoaren parte izateagatik. Haietan, erabaki estetikoak ideologia jakin bati lotuta daude, elkarren kontrakoa dena.

Bunkerrei dagokienez, kontzepzio hori abstraktuagoa da, eraikuntza horiek planetaren luze-zabalean erabili baitira, gerra bat izan den tokian. Hala ere, Europan jartzen dut arreta, bertan bizi eta mugitzen bainaiz. *Spomenik*ei dagokienez, hitza monumentu gisa itzultzen da, eta monumentuek estetikatik landutako oroitzapenezko eginkizun nabarmena dute. Beren garaiko gobernu-formari atxikitako ideologia bati lotuta daude, eta, gainera, gai dira identitate komun bat proiektatzeko oso lurralde konplexuetan.

Memoria historikoarekin lotutako gaiek piztutako interesez eta ikuspegi ekofeminista batetik, irakurketa eta berrinterpretazio pertsonal bat planteatu ditut gerraren arrastoek markatutako hainbat kokalekuei buruz. Argazki-irudietatik abiatuta, azkenik, beste keinu batzuk garatzen ditut, bisualak baino materikoagoak direnak. Erakusketa-espazioan zabaltzen dira, itzulpen sinestesiko baten gisa, korrespondentzia sentsorialaren bidez, ehungintzako, zementuko edo burdinazko obrak eta esku-hartzeak barne hartuta, keinu urduri bezain sotilak jasoz.

Lortu nahi dut maitasuna nire motibazioa eta lan-metodologia izatea, gure kontinentearen historia sinbolikoki zeharkatu eta ibili ahal izateko, horrela aukera izan dezagun arte garaikidearen bidez berrirakurketa bat egiteko eta beste kontakizun batzuei bide emateko. Ulertzen dut maitasunak desirarekin eta lilurarekin duela zerikusia, baina zaintzarekin, afektuarekin eta erreparazioarekin ere bai, eta azken logika horretatik jardun nahi izan dut.

Amaia Molinet